



GARBIKUNTZA KONFIRMATUTAKO COVID-19 KASUEN ETXEBIZITZAN ETXEKO ISOLAMENDUAN

Pertsona gaixoaren logela

- Egunero garbitu pertsona gaixoaren logelako gainazal guztiak (mahaiak, ateetako eskulekuak, bainugelako osagarriak, komuna, telefonoa, ordenagailuetako teklatuak, tabletak, telefono mugikorra...).
- Garbiketarako maskarilla, amantala eta botatzeko eskularruak erabili.
- Desinfektatzeko hurrengo moduan egiten den lejia eta urazko prestakina erabiliko du:

1. Etxean duzun lejiatzeko 20 mililitro hartu (marka ez du zerikusirik), litroko botilan sartu eta txorrotako uraz bete osotu arte.
2. Itxi eta buelta eman hainbat alditan.
3. Prestatuta duzu 1:50an, litro bateko kantitatean.
4. Buztitu baieta disoluzioan gainazalak garbitu eta desinfektatzeko.
5. Garbitu baieta txorrotako urarekin erabilera bakoitzaren ostean eta lejiatzeko disoluzioan berriz urioldu.
6. Errepikatu prestakina egun bakoitzean (ez berrerabili).

Kontu garrantzitsua

Begiratu beti arriskuak saihesteko erabiltzen diren produktuen etiketak.



Lejia erabil ezin den gainazal batzuetan %70 etanol erabil daiteke.





- Logelaren garbiketa amaitzean, hurrengo ordena jarraituz jokatu da:
 1. Eskularruen kentzea.
 2. Amantalaren kentzea.
 3. Maskarilla kirurgikoaren kentzea
 4. Eskuen garbikuntza 1. Figuran zehazten den moduan.
- Pertsona gaixoaren logelan aurkitzen den zaborra lehenengo poltsa batean sartu behar da logela barruan eta geroago bigarren poltsa garbi batean. Guzti hori pertsona gaixoaren logelan utziko da gainerako zaborrarekin botatzen den arte. Zaborraren pilatzea eta kanporatzearen ostean, eskuak berriz garbitu beharko ditu.
- Ezin dira poltsak herrestatu lurzorutik (ez zaborrarenak ezta arroparena ere).
- Beste aspektu garrantzitsua da logelako aireztapen egokia mantentzea, baina beti ere atea itxiarekin.
- Pertsona gaixoa ospitalera eramanda izatekotan, logela aireztatuko da ordu batez, atea itxiarekin ere, eta geroago garbiketa orokorra egingo da.

Oheko arropa, toallak, pertsona gaixoaren arropa

- Posible izatekotan, pertsona gaixoa izango da garbitu behar den arropa poltsa batean sartuko duena.
- Zaindaria bada arropa jasotzen duena, logela barnean egingo du, eta maskarilla, amantala eta botatzeko eskularruak erabiliko ditu.
- Zaborrarekin esaten zen moduan, poltsa logelatik atera aurretik, bigarren poltsa garbi batean sartuko da. Erabilitako poltsa hauek botako dira erabilera bakoitzaren ostean.
- Arropa sartuko da segiduan garbigailuan, astindu barik eta kontu handiz. Gomendagarria da arropa zikinaren poltsa garbigailu barruan hustea.
- Pertsona gaixoaren arropa gainerako familiaren arropatik banatuta garbitu beharko da.
- Jarraian, eskuak garbitu behar dira eta garbigailua martxan jarri, ur beroko programa bat erabiliz (60-90 gradu).



Ontziteria

- Ontzi-garbigailua izatekotan, gainerako familiaren ontziteriarekin batera garbitu daiteke, 50-60 gradu baino gehiagoko tenperaturan.
- Ontzi-garbigailua ez izatekotan, lehenengo garbituko da familiaren ontziteria eta azkenean pertsona gaixoaren ontziteria, guzti hauek tenperatura altuetan. Hau aldeztu aurretik jarriko da ur beroan detergentearekin, eta gero garbituko eta irakutziko da zuzentasunez.





Pertsona gaixoaren hondakinak

- Pertsona gaixoak sortzen dituen hondakinak, baita bere zainketa sortzen duen zaborra ere, zabor kontaineren bidez eliminatuko da, guztiak batera eta aldi batean egiten saiatuz.

Gainerako etxebizitzaren garbiketa eta desinfekzioa

- Egunero garbitu lehen azaldutako soluzioarekin sarritan ukitzen diren gainazal guztiak, hala nola, mahaiak ateetako eskulekuak, bainugelako osagarriak, komuna, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, tabletak, etab. Hainbat alditan.
- Gainerako etxebizitzaren eguneroko aireztapen egokia ziurtatu.

1. figura. Eskuen garbiketa

1. Eskuak bustitu urarekin eta xaboi likidoa ipini eskuazpian



2. Eskuazpi lehorretan soluzioaren dosi bat ipini



- 3-4. Eskuak haien artean igurtzi atzamarrak elkarlotuz



5. Eskuazpi bakoitza igurtzi beste eskuaren atzekaldearen kontra atzamarrak elkarlotuz.



6. Atzamarren puntak igurtzi...





7-8. Hatz lodien eta eskumuturren inguruan.



9-10. Uretik pasatu eskuak eta lehortu erabilpen bakarreko toailekin edo utzi soluzioa bakarrik lehortzen (desinfekzio soluzioa erabiltzearen kasuan).



11. Toaila erabili txorrota ixteko.



12. Zure eskuak seguruak dira



Ez ahaztu gomendio hauek jarraitzen, guztien onurarengatik

